

hilortzari bai

TXILLARDEGI

Datorren 26an epaituko dituzte Bilbon hilortza («aborto» erdaraz) egin duten emakume batzuk. Eta, beharbada, gartzelara luzaroko eramango.

Eta ene lehenengo galdera hau da: **zer egingo da haurdun utzi zituzten gizonaz?**

Galdera zozoa dirudi beharbada; baina hilortzaren arazoa honela begiratu behar da, ene ustez. Emakumeak ez baitira hai-zez haurdun gertatzen gizaseme konkretuen ekintzaren ondorioz baizik. Non epaituko dituzte Bilbo-ko emakume horien maitaleak? Zer eskatzen du juezak beroien kontra?

Emakumeari berez eta naturaz datorkio amatasun-nahia. Gizonari, oso oker ez banago, ez. Neskatalak panpinekin jostatzen dira, eta mutikoak ez; eta ez gizarte-presioz bakarrik. Amak, normalean, berez eta ezerk horretara behartu gabe, ama izan nahi du. Gehienetan bai, behintzat.

Emakume batek, beraz, bere sorkurazko joeraren kontra, sabelean daraman gizagaia hiltzea erabakitzen duenean, askotan, gehienetan, **ezintasunez** (lan gehiegi etxen, dirurik eza, eta abar) edo-eta **haurdun utzi zuenaren arbuioaz** erabakitzen du hori. Eta bi kasu hauetan hilortu nahi duen emakumeak arrazoi du.

Zer da okerrago? (lehenengo sailari gaxeziolarik): gizarte gupidagabe honetara ekonomi-oinarririk izango ez duen gizakume bat sortzea, ala ez sortzea? Arinkeria ahal da betirako zoritxarra besterik ezagutuko ez duen gizakume bati «ez» esatea? Zuzena ahal da, alderantziz, ez famili-maitasunik, ez lanbide-hezkuntzarik, ez osasunik ere beharbada izango lukeena, derrigor izatera bultzatze? Inork baino zorrozkiago senditzen du hilortza-

beharra amatasunerako bidean abiatua zenak.

Baina goazen bigarren sailera. Eta hau, gizonetzkoa izanik, aisago esan dezaket nik emakumeek berek baino. Nola gertatzen dira haurduntza asko? Zenbat aldiz ez emakumearen erreguen kontra, eta gizonaren **erru soilaz?** Sorkuraz eta senaz da emakumea hotzago eta uzkurrago; eta nahi ez diren haurren % 99, beraz **gizase-meari** leporatu behar zaizkio, eta ez emakumeari. Bilbo-ko hauzitegian, hortaz, gizasemeak ikusi behar genituzke, eta ez emakumeak; sexu-harremanen arazoan, gizasemea baita txoriburua eta erruduna, eta ez emakumea.

Jaio behar duen haurrak maitasun-girorik (ezta etxerik ere!) izango ez badu, sortzeko gauaren nolakotasuna ezagutarazi behar litzateke. Xeheki. Eta lotsagarri nor irtingo litzatekeen badakigu.

Manikeismora lerratu gabe, beraz, hau esan bide daiteke: hilortza hobena baldin bada, **bi parteak** eraman behar direla tribunaleetara; eta ez errurik txikiena eta ondoriorik larrienak jasan dituen.

Baina, badakit, eta badakigu: ernatu den gizagaiari jaiotzarako bidea moztea hiltzea da. Nahi dut.

Eta puntu honetan harrigarria da hilortzeari buruz ageri den ideia.

Osagile batek eman behar luke bere iritzia. Baina, kanpotik ikusirik, bi hilabete, hiru hilabete, dituen haragi-pilo hori pertsona ahal da? Ez du ematen.

Naturak burura eramango lukeen izakibidea etena izan da. Hori garbi dago. Baina pornografia gailen, errobera eguneroko ogi, eta sexu-desbidaketa guztiak libro bihurtu direnean, zergatik hilortza bakarrik; eta, hauek ere, haurdun gel-

ditu diren emakumeak bakarrik? Ez ahal dago bizi-etenduririk gizonen errobera-jakoetan? Aitor dezagun: lege horien guttien oinarrian, «arkeria» dago, eta oskurantismoa ere ez urri. Sexua sakratua da; baina burua eta eskuak ere bai. Eta bukuaren eta eskuen esplotazioa ez da gaizki ikusten. Tabu zaharrak bizirik!

Eta mundu horretan emakumea da bitima.

Emakumea, era berean, atsegin-merkantzia nabarmen den bezalaxe. Mintza bitez «Interviú» astekariaren foto horiek. Zergatik ez, noizean behin bederen, gizaseme sendo batzuk, larru gorri-gorrian, eta zakilak eta koskabilak xeheki ageri direlarik? Zergatik ez? Gizasemea «bestetik» delako?... Horra! Zergatik puta-etxeei bai, eta puto-etxerik ez?

Aitor dezagun: Bilbo-ko emakumeek arrazoi dute.

Eta nik, behintzat, nahi ez den haurra-**ren bi sortzaileak** ez zigortzekotan, **ez nuke bat bakarrik** zigortuko.

Gutxienez hori!

Eta otoi!: isil bitez burgesak arazo horri buruz. Zeren-eta, noren zerbitzutan daude putak? Noren zerbitzutan kabaret dotoreak? **Zein klaseren** zerbitzutan? Nola aipa dezakete eskuindarrek «biziarekiko errespetua»; bizia zanpatzen eta ukatzen duten horietzek, bai lantegietan eta meatzeetan, bai putatxe eta kabaretetan?

Eta nola esan dezakete hitzik ere hilortzaren legeztatzearen kontra, **diruaren poderioz**, beren emazteak eta alaba «garbiyak» hilortzera Londres-era eta Ginebra-ra eramaten dituzten horietzek?

mujer y sanidad

OIHUKA

La medicina considera al organismo masculino como patrón oficial de normalidad equivalente a salud.

El organismo femenino se diferencia de este patrón fundamentalmente en su función reproductiva, por tanto no es de extrañar que la vida reproductiva de la mujer sea considerada como una enfermedad, que necesita especial atención médica.

Si en general es obvio que la medicina oficial no está enfocada para conseguir el bienestar del individuo, sino que responde a las necesidades del Estado del que es portavoz; con respecto a la mujer es evidente que es portavoz de un Estado Patriarcal que ve a la mujer únicamente como reproductora.

Y si bien cualquier individuo está en

manos de la medicina durante el tiempo que dure su enfermedad, las mujeres estamos sometidas a este control desde los 15 a los 50 años (duración de la vida reproductiva). Este es un instrumento más de los que se sirve el Estado Patriarcal para someter a la mujer, reforzando así la institución familiar.

Hoy los avances técnicos podrían ofrecernos la posibilidad de independizarnos de nuestra función reproductora no subordinando toda nuestra existencia a la reproducción. Sin embargo la medicina al servicio del Estado Patriarcal y Machista, que orienta y financia la investigación hacia el control demográfico, niega la posibilidad de controlar nuestro cuerpo.

— Hoy existe la posibilidad del parto sin dolor, gracias a la anestesia epidural...

pero el 90 por ciento de las mujeres parimos sin ella, aún en los centros sanitarios donde esta se practica.

— Hoy se vuelve a considerar la lactancia materna como la más beneficiosa para el recién nacido, argumentándose para ello que las leches artificiales no contienen las defensas necesarias. Es curioso que la investigación, que ha conseguido leches similares a la materna en calidad nutritiva, se haya quedado estancada en este punto durante los últimos años, que curiosamente coinciden con la desincorporación de la mujer del trabajo industrial y con el inicio de la crisis económica. Es curioso constatar también que las leches artificiales aparecen durante la segunda guerra mundial con la incorporación masiva de la mujer al trabajo industrial.